

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Hasierako onarpena ematea hainbat zerga ordenantzaren aldaketari

Udal honek, korporazioaren 2016ko urriaren 6ko ohiko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zion, legezko gehiengo osoarekin, ondoren adierazten diren zerga ordenantzak aldatzeari:

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza. 16.5 artikulua (hobariak) aldatzen da.

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza. Tarifaren eranskina aldatzen da.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza. Tarifaren eranskina aldatzen da.

Espediente hori jendaurrean jartzen da hogeita hamar egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek epe horretan aztertzeko eta, hala badagokio, egoki jotzen dituzten erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko.

Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, hasieran onartutako erabakia behin betiko onartutzat joko da.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2016ko urriaren 6a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ